

Sabino Arana euskal abertzaletasunaren aita modura geratu da historian, aberria kontzientzia nazionalaz jantzi eta bere buruaren jabe izaterainoko bidean jarri zuena legez. Helburu horren atzean eman zuen bizitza osoa, eta ia ez dago landu gabe utzi zuen arlorik. Azken hatsa ematerainoko ekina izan zen berea, uzta ezin oparokoagoa, eskuzabaltasun ezin handiagokoa.

Ez dago berarekin zorretan ez dagoen abertzalerik, harengandik jasotakoa munduan euskal herritar gisa kokatzeko ezinbestekoa denez gero. Euskarari ere hamaikatxo ekarpen aberats egin zizkion, zegoen hiltzoritik atera eta biziberritzeko asmoz. Hizkuntza bere egitasmo politikoaren ardatzetakoa izan zen, hain ondare preziatuari zegokion garrantzia eman eta euskal izaeraren muinarekin estu lotu baitzuen, euskalduntasunaren funtsezko osagaitzat hartuta.

Berak 1901eko irailaren 16an Hendaian emandako hitzaldian esan zuenez, “erretorikaren apaindurak ez dira egoten benetako jakintzari lotuta”. Eta osagarri edo apaingarri zirenak baztertuta, zuzen jo zuen beti sakon-sakonekora, jatorrizkora, mamikora. Aurreko mendearen hasierakoetan gramatika eta ortografia bateratuak aldarrikatu zituen euskararentzat, zehatzak eta denek onartuak, irizpide eta aurreiritzi propioak bazter utzi eta printzipio zientifikoetan oinarritutakoak, nahiz eta orduko hartako giroan ezinezko ikusi. Ez zuen etsi ordea, eta euskarak jalgi eta irauteko bi baldintza nabarmendu zituen: bere lurraldearen barruan bizitzarako beharrezko egitea eta beharrian horiek beroriek asebetetzeko gai bilakaraztea.

Mende luze pasatxo joan denean, euskara ofiziala da Euskal Herriko zazpiren arteko mendebaldeko hiru lurraldeetan, eta baita Nafarroako iparraldean ere. 1980tik aurrera, bi urte beranduagoko Euskararen Legea lagun, Eusko Jaurlaritzak lan erraldoia egin du euskararen sustapenerako, borondate politiko irmoak bultzatuta.

Hizkuntzaren inguruan diharduten eragile anitzei esker, asko aurreratu da hezkuntzaren alorrean, euskalduntze prozesuan, kultur zabalkundean, bertoko hedabideen hauspo izateko ahalmenean eta bestelako askotan. 1968an Arantzazun erabakitakoetatik jo eta baita euskara bera egungo bizimoduaren beharretara moldatu eta egokitzearekin ere. Aro digitalari nola eutsi dion ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko, aurreragoko jauzi teknologikoetan ez bezala arazo izan zitekeena aukera bihurtu baita.

Desafioak, hala ere, ikaragarriak dira oraindik. Biziraupenaren erronka irabazita, diglosia gainditu eta erabateko normalizazioarenari heldu behar zaio tinko. Sabinok

EUSKARARI EKINEZ BIZIBERRITU

LOREA BILBAO IBARRA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA ETA
KULTURAKO FORU DIPUTATUA

esandakotik, eguneroko bizimoduan besteen pare jartzerainokoa behar du egungo ekinak, adostasun zabaletatik, perspektiba historikotik eta erabateko harkortasunetik abiatuta, noski, baina baita azken helburua oso argi izatetik ere. Horretarako, premiazkoa da euskararen lurralde guztietan berorri babes juridiko eraginkorra eskaintzea.

Zorionez Nafarroako gobernu aldaketa erabakigarria izan daiteke erresuma zaharreko zokondo guztietan euskarari berea eman dakion eta Iparraldean urratsak egiten jarraitu beharra dago, elkarlan anitzena lehenetsita.

Herri erakundeoi gure alea jartzen jarraitzea dagokigu 1901eko hitzaldi hartan abertzaletasunaren sortzaileak amestutakoa errealitate bihurtzeko. Baina herritarren borondateak eramango du bururaino euskararen behin betiko normalizazioa, gazteleraren eta frantsesaren maila bere-tik gurea baino ez den hizkuntza alor guztietan baliatzetik helduko dena. Horretarako, hiltunen beharrea dago euskara, gutako bakoitzaren eta beste askoren beharrea.

**Desafioak, hala ere,
ikaragarriak dira oraindik.
Biziraupenaren erronka
irabazita, diglosia gainditu eta
erabateko normalizazioarenari
heldu behar zaio tinko.
Sabinok esandakotik,
eguneroko bizimoduan
besteen pare jartzerainokoa
behar du egungo ekinak,
adostasun zabaletatik,
perspektiba historikotik eta
erabateko harkortasunetik
abiatuta, noski**

**Zorionez Nafarroako gobernu
aldaketa erabakigarria izan
daiteke erreinu zaharreko
zokondo guztietan euskarari
berea eman dakion eta
Iparraldean urratsak egiten
jarraitu beharra dago,
elkarlan anitzena lehenetsita**